

Garazi Zubeldia Zubeldia

Emaila • 3 saria



Kaixo, ni Garazi Zubeldia naiz eta 11 urte ditut. Beasainen bizi naiz eta aurten 6. maila egiten ari naiz Alkartasuna Lizeoan.

Nire zaletasun nagusia musika da eta bibolina jotzen ikasten ari naiz. Kirola egitea ere asko gustatzen zait, horregatik Beasaingo igeriketa taldeko partaide naiz eta lagunekin nabilenean futboleko jokatzea dut gustukoan.

Denbora librean, kubo desberdinak egiten ditut eta gauetan lo hartu aurretik ohean liburuak irakurtzea ere oso atsegin dut, beldurrezko istorio bat baldin bada ere ez zait inporta :-)

Nik asmatu dudan ipuin hau ez da beldurrezkoa baina bertan badira une deserrosoak...

LAGUNAK

2018ko ekainaren 5a

Kaixo, ni Urko naiz, 11 urte ditut eta asko gustatzen zait lagunekin jolastea. Elizondon bizi naiz. Jada kurtsoa bukatzean dago eta izugarrizko gogoia dut oporretarako. Oporretan oso ondo pasatzen dut, nahi dudanean kalera atera eta lagunekin futboleko ibiltzen naiz, eta beroa egiten duenean igerilekura joaten gara eta han ere ederki pasatzen dugu. Baina oraindik kurtsoa bukatu behar da. Eskolako egun bakoitza oso luzea egiten zait, gainera gaur matematika eduki dugu eta ez zait batere gustatzen, zatiketak, biderketak, berreketak, erroketak... denak alferrikakoak iruditzen zaizkit, eta hori gutxi balitz andereñoa oso petrala da. Orain egunero bezala afaltzera noa.

Afaria bukatu orduko izugarrizko sorpresa eman didate gurasoek, baina ez batere ona. Aspalditik nekien orain egiten duten lanean ez daudela gustora eta Beasain izeneko herri batean lanpostu hobe bat eskeini omen diete. Azkenean onartzea erabaki dute. Baina Beasain urruti geratzen da eta hara joan beharko dugu bizitzera. Ni oooooo triste nago. Ez dudala joan nahi oihukatu diet baina aitak zorrotz esan du kurtsoa amaitzean joan egingo garela.

Orain negar zotinka logelan ezkutatu naiz, oso haserre nago gurasoekin.

2018ko uztailaren 7a

Kurtsoa nik nahi baino azkarrago bukatu da azkenean. Gaur etxeko gauza guztiak kaxetan

sartzen hasi gara. Nik berehala bukatu dut. Gurasoak esan didatenez 10ean etorriko dira kamioiean gauzak eramatera. Inoiz baina azkarrago pasa dira azken egun hauek. Ez dut hemendik alde egin nahi, ez ditut hemengo lagunak galdu nahi ezta andereño petrala ere. Ez dut beste bizitza berri batekin hasi nahi.

2018ko uztailaren 10a

Triste-triste lagunak agurtu behar izan ditut eta herritik alde egin dugu. Ordu eta erdi inguru pasa ondoren Beasaina iritsi gara. Ondoren herria pixka bat ezagutzeko bueltatxo bat eman dugu. Niri behintzat Elizondoren aldean oso handia iruditu zait.

2018ko irailaren 9a

Geratzen zitzaizkidan opor egunak bakar- bakarrik pasa ditut. Gurasoekin ez nago haserre ulertu bait dut beraien gogoz ez dutela erabaki hau hartu, baina zergatik dugu hain zorte txarra? Opor egunetan lagunak falta handia sentitu dut, kalera atera eta lagunak ez edukitzea ez zait batere gustatzen, eta oso bakarrik sentitzen naiz.

Gurasoekin hitzegin dut eta beste behin atzera bueltarik ez dagoela esan didate, bihar eskolan hasiko naiz. Ni egunero bezala triste-triste ohera sartu naiz.

2018ko irailaren 10a

Gaur eskolan kurtsoko lehen eguna izan da. Oso urduri nengoen. Ez dut lagunak eta gainera irakasleak lehengoak baina okerragoak izateko aukera asko daude.

Eskolara sartu eta denek arraro begiratu didate, mutil arraro bat banintz bezala. Nik hori ez dut oso ondo ulertu, Elizondoko gelan lagun berri bat etorriko balitz kasu egingo genioke... edo ez? Ez dakit, baina orain garbi dut kasu egin behar zaiola. Eguna ooooooso luzea izan da. Klaseak aurreko urtekoak baino aspergarriagoak izan dira eta etxera iritsitakoan gurasoei azalpenak eman behar. Eskolan ondo hasi naizen galdetu dit aita eta noski ezetz oihukatu dut, estralurtar bat banintz bezala begiratu didatela esan diot.

2018ko urriaren 10a

Azkeneko idatzi nuenetik egun ia guztiak oso luze joan dira eta aita egunero berdina galdetzen jarraitzen du. Nik betiko erantzuna erantzuten diot, gaizki aita, oso gaizki pasatzen dut eskolan. Egunak joan, egunak etorri eta ez dut inongo aurrerapenik. Orain bakarrik ibiltzen ikasi dut eta gelakoek horrelakoa naizela pentsatzen dute, bakartia eta ixila. Konturatzerako hilabete pasa da. Pixkanaka pixkanaka aita haserretzen joan da eta azken egunetan sekulako sermoia bota dit. Baina nola egingo ditut lagunak? Oso erraza da aita eta amak saiatzeko eskatzen dutenean, baina nola hasiko naiz ez badidate kasurik egiten? Ni beti izan naiz lotsatia eta Elizondoko lagunak bazekiten hori, beraiek beti laguntzen zidaten pauso berriak ematen. Baina orain bakar bakarrik nago eta asko kostatzen zait lagunak egitea. Baina azkenean lotsa alde batera utzi eta lagunak egiten saiatu behar dut. Bihar bertan hasiko naiz.

2018ko urriaren 18a

Aldatzeko asmoa hartu nuenetik hurrengo egunetan eskolan jendearengana hurbiltzen hasi nintzen baina ia inork ez zidan kasurik egiten. Zerbait esan eta erdi parrezka erantzuten bazidaten kolore gorri-gorriekin jarri eta negar egiteko gogo izugarria izaten nuen. Etxera triste eta beldurrez iristen nintzen aita eta amari berriro gaizki pasatzen nuela esan behar nielako. Baina aita eta ama egunero kezkatu dira niregatik eta ahal duten bezala lagundu didate.

Hasieran asko haserretzen nintzen egunero zer moduz pasa nuen galdetzen zidatelako baina azkenean konturatu naiz niri laguntzea besterik ez dutela nahi. Orain beraiek esaten dutena egiten saiatzen ari naiz eta egunetik egunera konfidantza handiagoa dut nere buruarengan baita nere ondoan dauden lagunengan ere.

2018ko abenduaren 15a

Hemengo lagunak ere oso jatorrak dira. Oso ondo moldatzen naiz beraiekin. Hemen ere futbolean asko ibiltzen dira eta igerilekua ere oso handia dago. Baina hala ere, Beasaindik gehien gustatu zaidana musika eskola izan da, musika izugarri gustatzen zaidala konturatu naiz eta bertan ederki pasatzen dut. Instrumentuak jotzen ikasteko ere aukera oso onak daude!

Orain lagunak herriko gauza asko kontatzen dizkirate eta geroz eta gusturago nago Beasainen. Nik ere nere gauza asko kontatzen dizkiet eta jadanik badute Elizondo eta hango lagunak ezagutzeko gogo. Agian hurrengo udan Elizondora joango naiz hemengo lagunekin eta ederki pasako dugu denok elkarrekin, izugarrizko gogo dut!

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Beasaingo idaz lehiaketako liburuan.